

UMOREAN

FILTRO ETA PAUTAK MOZTU ETA ELKARTU ERAZTUNEKIN



UMOREAN

NOLA ERABILI FILTRO TUNTUN BAT



FILTRO TUNTUNA

FILTRO BAT OINARRIZKO ARAU SORTA BAT DA, ESZENA BAT EGOERA BATETIK BESTERA IGAROTZEA ERAGITEN DUENA, ESZENA BERRI BAT SORTUZ.

TUNTUNA DERITZOGU, EGOERA BATETIK BESTERAKO URRATS HORRETAN UMOREA SARTZEKO AUKERA EGON DADIN BILATZEN DUGULAKO, HAU DA, ESZENATOKI DESBERDINETAN JARDUTEN DUGUN LOGIKA APURTZEKO ETA, HORRELA, GURE PORTAEREN INERTZIA GELDIARAZTEKO, ETA JOKATZEKO ETA ERLAZIONATZEKO MODU BERRIAK AHALBIDETZEKO ESTRATEGIA.

1. ESZENA BAT AUKERATU

KASU HONETAN, ESZENA TESTUINGURU PEDAGOGIKOAN GERTATZEN DEN EGORA BATI DEITUKO DIOGU.

(IKASLE ETA IRAKASLEAREN ARTEKO ELKARRIZKETA, GAI BATEN AZALPENA IKASGAI BATEAN, KLASE BATEN LEHEN BOST MINUTUAK,...)

2. ESZENAREN GAINEAN ZAZPI FILTROETAKO BAT ERABILI

ZAZPI FILTROETAKO BATEK ESKAINTZEN DIZKIGUN AUKERAK ERABILIZ, ESZENA MODU TUNTUN BATEAN BEGIRATZEAN DATZA. FILTROEK EGOERAREN OHIKO LOGIKA APURTZEN LAGUNDUKO DUTE; PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK, EKINTZEN HELBURUAK, DENBORAK...

NOLA ERABILI FILTRO TUNTUNA



3. PAUTA BAT SORTU/PENTSATU

PAUTA DEITZEN DIOGU GELAN EKINTZA BAT AURRERA ERAMATEKO ERABILTZEN DUGUN ARAU SORTARI.

NOLA ERABILI FILTRO TUNTUNA



7

FILTRO TUNTUN



KAR KAR KAR (barrea)

Barrea, umoreari gorputzak ematen dion erantzun fisiologikoa da. Organismoak estimulu jakin batzuei ematen dien erantzun biologikoa da. Filtro honek eszenaren tonua barrearen bitartez etetea bilatzen du. Benetako barrea izan daiteke edo plantak egin, barre jarraia edo puntuala, eta bakarka edo taldean egin.

FILTRO TUNTUNA



GORPUTZ FILTRA- TUAK (gorputzek bere esanahia gal- tzen dutenean)

FILTRO TUNTUNA

Gorputza eta mugimendua-
rekin jolasten gara. Kokaleku
berriak topatu ahal ditugu,
espaziotik mugitzeko ezohiko
moduak erabili, esanahi
berriak dituzten keinuak
asmatu...



KAOSA (*Beste arau batzuk*)

FILTRO TUNTUNA

Eszenan gure portaera zein
izan behar duen esaten digu-
ten arauak (ikusten direnak
eta ez direnak) haustean
datza. Arau horiek existituko
ez balira bezala jokatzeari,
ordena aldatzea edo berriak
sortzea.



MONA LISA ETA BIBOTEA (apropiazioa)

FILTRO TUNTUNA

Filtro honek beste autore
baten irudi, produkzio edo gai
bat erabiltzea gonbidatzen
gaitu, hau eszenara ekartzeko.
Artelan baten eszena errepre-
sentatu dezakegu edota obra
baten izenburua ariketa bati
jarri, besteak beste.



PALABROAK (Hitzek bere esanahia gal- tzen dutenean)

FILTRO TUNTUNA

Hizkuntzarekin eta bere
esanahiarekin jolastuko
dugu. Hitzak esateari utzi
eta soinuengatik ordezkatu,
existitzen ez den hizkuntza bat
hitz egin, esaldiak eraikitze-
ko ohiko ordena aldatu...



ZAPOZAPOZAPOZAPO (errepikapena)

FILTRO TUNTUNA

Eszena osatzen duen elementu jakin bat hautatu eta etengabe errepikatzean datza.

Eskola, agurra behin eta berriz errepikatuz hastea, elkarrizketaren tartean geratu eta esaldi bat beste tonu batean errepikatu...



ESAN vs EGIN (deskonexioa)

FILTRO TUNTUNA

Esaten dena egiten ari denarekin lotura galtzen du. Adibidez, gai bati buruz hitz egin daiteke eta diskurtsoari ez dagozkion keinuak egin daitezke, edo gai bat aurkeztu eta honekin harremanik ez duen istorio bat kontatu ondoren.



PAUTAK



KARKARKAR (barrea)

PAUTAK

Eszena pedagogikoa (I): klaseko lehen eta azken ordua (lehen klaseko lehen 10 minutuak, azken klaseko azken 10 minutuak).

Pauta (I): barrerako une bat proposatu. 10 minutuz barre egiteko ariketa egingo dugu. Ez dago barre egiteko arrazoi zehatzik; ariketa fisikoa da, arnasketakoa. Aire hartu, eta, amaitutakoan, aaaaa, jaaaa, jajajajajajajajaj... soinua aterako dugu behin eta berriz.

Eszena pedagogikoa (II): gelan landutako gai bati buruzko gogoeta kritikoa.

Pauta (II): gaiaren funtsezko puntuak barre artean solastea.



ZAPOZAPOZAPOZAPO (errepikapena)

PAUTAK

Eszena pedagogikoa (I): Tutoretza bat.

Pauta (I): Bileran zehar, irakasleek ikasleen rolak hartzen dituzte eta ikasgelan duten portaera erreproduzitzen dute.

Eszena pedagogikoa (II): Talde lan bateko ikasleen aurkezpena.

Pauta (II):

1. Taldeko kide ez diren ikasleek, taldeak eskaintzen duen informazioa errepikatu behar dute.
2. Taldeko batzuk, taldeko bozemaileak esaten duena errepikatzen dute.



ESAN vs EGIN (deskonexioa)

PAUTAK

Eszena pedagogikoa (I): ikasgaiaren aurkezpena ikasturteko lehen egunean

Pauta (I): aurkeztuko den pertsonari mikrofonoa ematen zaio, eta gainerakoei belarrientzako tapoiak.

Eszena pedagogikoa (II): irakaslearen aurkezpena.

Pauta (II): zure aurkezpena egiten duzun bitartean, egin zure hitzen esanahiarekin zerikusirik ez duten gorputz-keinuak. (adibidea. "Egun on,

nire izena... da. hau da... "tenisean jolasten ariko bazina bezala mugitzen zaren bitartean".

Eszena pedagogikoa (III): gai berriaren azalpena.

Pauta (III): gai bat aurkeztu eta guztiz desberdina den beste baten azalpena ematen dugu (adibidez: "planetak landuko ditugu..." eta animalia ornodunei buruz hitz egingo dugu)



MONA LISA ETA BIBOTEA (apropiazioa)

PAUTAK

Eszena pedagogikoa (I): ikasturteko lehen eguna.

Pauta (I):

1. "Los Burgueses de Calais" (Rodin) lanaz gure egin genuen.
 - Zutik dauden ikasleek "Burgesak" gorputzen dituzte
2. Mona lisoa bibotearekin, LHOQ (Marcel Duchamp)
 - Biboteak jartzen ditugu.
3. Rikrit Tiravamija: ikasgelatik atera eta ikasle batek erabaki duena egiten dugu.

Eszena pedagogikoa (II): matematikako lehen klasea, angeluak eta aldeak azaltzen direnean.

Pauta (II): kultura bisualaren erreferenteak erabiltzea aztergaia erakarriago egiteko (ezagutzen dituzten logoak edo markak, mugikorreko pantailako ikonoak)



PALABROAK (Hitzen bere esanhaiak galtzen dutenean)

PAUTAK

Eszena pedagogikoa (I): Klasearen hasieran zerrenda pasa.

Pauta (I): zerrendari begiratzean, zerrendarekin zerikusirik ez duen zerbeit absurdua kontatu.

Eszena pedagogikoa (II): taldeari zerbeit azaltzen ari zarenean eta 20 segundotik behera interesa galdu dute eta deskontzentratuta daude.

Pauta (II): tarte luze batez, publizitate-lelo ezagunak bata bestearen atzetik errepikatu.



GORPUTZ FILTRA- TUAKE(gorputzek bere esanahia galtzen dutenean)

PAUTAK

Eszena pedagogikoa (I): eguneko edozein unetan, ikasgelan.

Pauta (I): egiten diren keinuak identifikatzea eta keinu bakoitza ikasleek asmatutako beste keinu batekin ordezkatzeko. (adibidez: erantzuteko eskua altxatu beharrean, belarria 3 aldiz ukitzea)



Eszena pedagogikoa (II): aditzak azaltzean (nor nori nork...)

Pauta (II): nor nork aditzetarako keinu bat asmatzen dugu, nor-nori nork aditzerako beste bat, etab. Hor-tik abiatuta, ariketa batzuk planteatzen ditugu, hala nola testu bat altuan irakurtzea eta aditzak entzutean keinuak egitea.



KAOSA (*Beste arau batzuk*)

PAUTAK

Eszena pedagogikoa (I): olimpiadak eskolan.

Pauta (I):

1. Hiru joko/kirolaldi berean jokatzea. Taldeak nahasi egiten dira joko bakoitzean (...)

2. Futbolean (edo beste kirol batean) jokatu eta aldi berean dantza-lehiaketa egin. (Gol gehien sartu dituen eta, aldi berean, hobeto dantzatzeko duen taldeak irabaziko du.)



3. Partida edo kirol bat ekintza zailtzen duen leku batean planteatu (adibidea: lasterketa oso distantzia txikian, saskibaloia aldapan ...)

